



ZESTOAKO UDALA

AKTA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko apirilaren 11n buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemeretzi apirilaren hamaikan, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2019ko martxoaren 14an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- INSTANTZIAK

2.- Imara Ingeniaritzak, S.E. S.A.U.ren izenean, Sansineneako A1.3.3 partzelan, motorren muntairako jarduera lizentzia izateko dokumentazioa aurkezten du. Aurkezturiko dokumentua aztertu ondoren, martxan jarriko da jarduera baimenaren tramitazioa.

3.- J.R.A.k, Sansineneako poligonoan egiten duela lan eta bere autoa herdoil pinportaz dagoela dio, bere esanetan, GRI Castings enpresatik dator arazoa. Jakinaraziko zaio Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela gai honen inguruan eta ikuskaritzak egin direla GRI Casting enpresan.

4.- J.J.C.k, Sansineneako GRI Castings enpresak hondakin kutsatzaileak aineratzen dituenaren susmoa dutela dio. Jakinaraziko zaio Udala Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin harremanetan dagoela gai honen inguruan eta ikuskaritzak egin direla GRI Casting enpresan.

5.- A.A.S.L.U.k, urte askotako dokumentazio konfidentziala dutela eta, horiek erretzeko baimena eskatzen du, trituratzeak denbora asko suposatuko dietela eta. Proposatu den konponbideak ez ditu ingurumenaren babeserako irizpideak betetzen; horregatik, ez da baimenik emango

6.- A.E.G.k, Lizarraitz auzunea 1D etxebizitzan obrak egiten ari direla eta, martxoaren 8ra arte kontainerra jartzeko baimena eskatzen du. Lizarraitz auzuneko bidea ez denez publikoa, ez dagokio Udalari baimena ematea.

7.- J.J.G.E.k, 03-31 partzelan baratza egokitzeko, hainbat lan egiteko udal baimena eskatzen du. Ondorengo erabakiak hartu dira: baratzari dagokionez, baratzaren azalarera eta kokapen zehatza adierazten duen planoak aurkeztu beharko da udalean. Eremu honetan mina zulo bat dago, eta egin nahi den baratzarekiko gertutasuna aztertu nahi du udalak. Bestalde, bideari dagokioz, udal bulego teknikoak bilera egingo du tokian bertan eskatzailearekin, egokitu nahi duen bidearen ezaugarriak eta dimentsioak tokian bertan aztertzeko.

2.7) Elkartuk, Alonderoneko aldapako igogailu berriaren inguruko idatzia aurkezten du, Udalak 2018ko abenduaren 3an igorritako idatziari erantzunez. Erabaki da gaia sakonago aztertzeko Elkartu elkarteko teknikariak eta udal bulego teknikarien artean bilera bat antolatuko da, bi aldeen artean irizpideak zehaztu eta hartu behar diren neurriak argitzeko.

2.8) P.J.M.M.k, Iraetako Sabea kaleko garbiketaren inguruko kexa aurkezten du. Erabaki da kale garbiketa zerbitzuari kexa honen berri ematea eta Sabea kaleko garbiketaren inguruan jarraipena egitea.

2.9) J.A.G.k, Aizarnan egin behar duen oilategirako Elkoetan dagoen tomatik ura pasatzeko baimena eskatzen du. Horrekin batera, Udalak tuboa pasatzeko laguntza ematea ere eskatzen du. Erabaki da Elkoetatik ur hornidura hartunea egiteko bete behar diren baldintza zehatzak udaleko zerbitzu sailak zehaztea. Honegatik guztiagatik, teknikariak eta brigadako ur hornidura zerbitzuak bilera bat egingo dute tokian bertan J.A.kin, baldintza teknikoak zehazteko. Bestalde, Udalak gaur egun ez ditu dirulaguntzak jasotzen mota honetako ur hornidura sare berriak egiteko. Urkome elkartearekin kontsulta egin du udalak eta partikularrei zuzenean ematen zaizkien dirulaguntza programaren aipamena egin dute. Honegatik guztiagatik, J.A.k Eskualdeko Nekazaritza Bulegora zuzendu beharko luke, ur hornidura berriak egiteko dirulaguntzen programaren inguruan informazioa lortzeko.

2.10) Sakulupe Guraso Elkartek, Arroabeko H.H.ko eraikinaren alboko zebrabidean, kotxeak aparkatzea ekiditen duen postea puskatu zela eta ahal bezain laster konpontzea eskatzen du. Erabaki da udal brigadako lanen zerrendan sartzea eta ahal bezain laster jartzea poste berri HH.ko eraikinaren alboko zebrabidean.

2.11) Sakulupe Guraso Elkartek, Arroabeko Joxe Migel plazan zulo bat dagoela dio, jangelako eraikinaren alboan. Arriskutsu dagoela eta konpontzea eskatzen du. Erabaki da udal brigadako lanen zerrendan sartzea eta ahal bezain laster estaltzea jangelaren eraikinaren alboan dagoen zuloa.

2.12) M.R.k, beraien kalean egin diren urbanizazio lanen ondorioz, etxera ibilgailuz iristeko sarbidea lekuz aldatu zaiela dio. Auzolagun batzuk bi auto sartu omen dituzte bere etxerako sarbidean, bidea erabat oztopatuz. Ondorioz, ibi iraunkorraren eskaera egiten du. Erabaki da jakinaraztea M.R.k aipaturiko eremu pribatuan udalak ez daukala ibi iraunkorra baimentzeko eskumenik. Beraz, eskaera ez da onartzen. Bestalde, Marduxarra 6 eta 8 zk.en arteko eremua eta autoen arazoa aztertzeko M. R.ni eta bere senarra J.O.ri bilera batera deituko zaie Zestoako Udalean.

2.13) A.I.L.k, Idiazpi auzunea 5eko Jabego Elkartearen izenean, Idiazpi auzunea 5etik Zubimusu kalera doan arranja berriari argiak jartzeko eskatzen du. Erabaki da Udalak argiteri publikotik Idiazpi 5 zk.ko arkupeetan argia jartzeko balorazio ekonomikoa prestzea, eta ondoren erabatzea eskaera onartu edo ez.

2.14) A.I.L.k, Arretxe plaza 1-2ko Jabego Elkartearen izenean, Arretxe plaza 1 eta 2an dauden jabegoaren lagapena egitea eskatzen du. Udalak Arretxe plaza 1 eta 2 zk.etakako etxebizitzak eraiki zireneko espedientea aztertuko du, beraien portaletara sartzeko espaloari zein baldintza jarri zitzaizkion defintzeko.

2.15) F.G.U.k, Lizasoeta txiki baserria Erabilera Publikoko Bidearen kontra dagoela dio, eta ez herri bidearen kontra. Beraz, EIT txostena aurkezteko Udalak egindako eskaera, bertan behera uztea eskatzen du. Erabaki da jakinaraztea Lizasoeta Txiki baserria Erabilera Publikoko Bidearen kontra dagoenez, Zestoako Udaleko Hirigintza Batzordeak ezarritako baldintzak betetzen dituela eta beraz, EIT txostena egitea dagokiola. Bestalde, Gipuzkoako ENHEK Zestoako Udalera idatzi bidali du baserriak EIT txostena egitetik salbuetsi behar direla azalduaz. Udalak, idatzi hau Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailera berbidaliko du, idatzi honen inguruko azalpenak eskatuz eta beraiek onarturiko legedia baserrietan nola aplikatzen den azaltzeko eskatuz.

2.16) J.L.A.k, Listorritzaga baserrian 2006-2007 urteetan obra egin zutela eta obra amaierako ziurtagiria aurkezten du. Ondorioz, EIT txostena egiteko data 2007ko otsailaren 12tik kontatzen hastea eskatzen du. Listorritzaga baserrian 2006-2007 urteetan erabateko obrak egin zirela onartzen du udalak, beraz, 2007ko otsailaren 12tik aurrera 50 urte igaro ondoren egin beharko de Listorritzaga baserriaren EIT txostena.

2.17) M^aJ.A.M.k, Gurutzeaga kalea 1 1A etxebizitzako sukalde eta bainugelan obrak egiteko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.18) R.F.C.k, Txiribogatik Aizarnazabalera igartzeko errepidearen arriskuarekin duten arazoa azaltzen du eta proposamenak aurkezten ditu. Erabaki da eginiko proposamena Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailera bideratzea, GI-2633 errepidearen kudeaketa berari baitagokio.

2.19) I.D.E.S.A.U.k, Zestoako-Iraeta auzoko 13,2 kV linean, T eta C.T. Uztapide tartean, obrak egiteko udal baimena eskatzen du. Erabaki da baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

2.20) I.A.I.k, Larrazabal bidea zuloz josita dagoela eta berdintzea eskaten du. Bestalde, bizigarritasunaren gaia nola dagoen jakin nahi du. Zestoako herrigunean asfaltatze lanak egin behar dira maiatzaren hasieran. Asfaltoa herrigunean dagoela aprobetxatuz, Zestoako Udaleko brigadak Larrazabalbideko zuloak asfaltoarekin hartuko ditu. Bigarren galderari dagokionez, gaur egun indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioek, baserrietan 2 etxebizitza baimentzen dituzte gehienez. Zestoako Udalak martxan jarri du Hirigintza Planeamentu Orokorren berritzea, eta prozesu honetan aztertuko da baserrietan baimendu daitezkeen etxebizitza kopuruaren gaia.

2.21) A.K.U.k, Larrazabal bideko zuloak konpontzeko eskaera egiten du. Zestoako herrigunean asfaltatze lanak egin behar dira maiatzaren hasieran. Asfaltoa herrigunean dagoela aprobetxatuz, Zestoako Udaleko brigadak Larrazabalbideko zuloak asfaltoarekin hartuko ditu. Zerbitzu Teknikoen koordinaziopean.

2.22) E.A.A., Larrazabalbideko zuloak konpontzeko eskaera egiten du. Zestoako herrigunean asfaltatze lanak egin behar dira maiatzaren hasieran. Asfaltoa herrigunean dagoela aprobetxatuz, Zestoako Udaleko brigadak Larrazabalbideko zuloak asfaltoarekin hartuko ditu.

2.23) J.L.S.I.k, Zubimusuko ekarpen gunearen ondoan lursail bat duela eta arratoi asko izaten direla dio. Udalak urtean bi aldiz banatzen duela pozoia dio, baina behar duenean pozoia hartzeko aukera izatea eskatzen du. 2018ko urtearen amaieran, Zestoako Udalak erabaki zuen baserriarren eta beharrezkoa duten herritarren eskura jartzen duen arratoinen aurkako pozoinaren banaketa kontrolatzeko, bakoitzari urtean 2 aldiz emango zitzaioela produktu hau. Ez dago baimenduta gehiago hartzea. Udaltzainak erregistro bat eramango du, urteko kopurua ez dela gainditzen kontrolatzeko.

2.24) S.F.A.k, kiroldegiko obraren 13. zertifikazioa aurkezten du. Guztira: 204.986,53 euro. Ontzat ematea erabaki da.

2.25) J.L.E.A.k, Arroabeko Artubia aldea ibardiaren berreskuperatze eta hobetze lanen martxoko kamioi erregistroa eta planoak aurkezten ditu. Kamioi erregistroa jaso izanaren adierazpena egitea erabaki da.

2.26) J.L.E.B.k, Narrondo auzoko Sarrondobekoa baserriaren aldameneari ukuilua egiteko kontsulta urbanistikoa egiten du. Sarrondobekoa baserriko ukuilu berriaren inguruko kontsultari erantzun aurretik honako dokumentazioa auzokari behar du Zestoako Udalean:

- Ukuilu berriaren kokapen planoak, ondoko partzeletara dauden distantziak zein diren azalduaz.
- Eraikin berriaren dimentsioak.

2.27) J.A.G.k, Aizarnan oilategia egin behar duela eta, Osasun eta Segurtasun arloko Koordinatzailearen izendapena aurkezten du. Erabaki da izendapena jaso izanaren adierazpena egitea.

2.28) J.O.A.k, E.M.S.A.ren izenean, T.S.A.ren dokumentazio zehatz baten kopia eskatzen du. Eskaturiko dokumentazioa identifikatu da T. S.A.k aurkeztu zuen dokumentazioan eta E.M.S.A enpresari bidaliko zaio ebazpenarekin batera.

2.29) B.1991 S.L.U.k, obra berriaren eskriturak aurkezten ditu. Erabaki da eskriturak jaso izanaren berri ematea.

2.30) I.S.k eta G.E.k, Ekainberriko aparkalekuan dauden karabanen jabeak, bertatik ateratzeko jakinarazpena luzatzea eskatzen dute. Apirilaren 22an, aparkalekuko sarbidea behin betirako itxiko dela ere jakinarazten dute. Sarbidea behin betirako itxeko ezarri duten data oso gertu dagoela ikusita (apirilaren 22a), ahal bezain azkar bilera bat egingo da I.S.a., G.E. eta Zestoak Udalaren artean arazoari konponbide bat aurkitzeko. Ahal bada, Aste Santuen aurretik egingo da bilera hau.

2.31) G.EHNEK, baserriak nekazal esplotazio modura erregistratuta badaude, EIT egitetik salbuestea eskatzen du. Zestoako Udalak Gipuzkoako EHNEK eginiko idatzia Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailera bidaliko du, baserrien EIT txostenaren inguruan azalpenak eman ditzan.

2.32) B.U.k, Arroarrekako M. baserrira Udaletik argazkiak ateratzera joan zirela dio, salaketa bat egon delako. Salaketari buruzko datuak eskatzen ditu. M. baserriko ukuiluari buruzko espedientea Udalean dago; beraz, interesatuak udaletxean kontsultatu dezake. Bestalde, M. baserriko biltegian baimenik gabeko obrak egin direnez, 2 hilabetetako epea ematen zaio jabeari, egoera legeztatzeko, ebazpen hau jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Ezin bada egoera legeztatu, udalak dagokion neurriak hartuko ditu.

2.33) G.P. eta J. E.k, San Juan Egoitza inguruan zaharberritu diren eskailerak heldulekurik ez dutela adierazten du. Eskaileretan heldulekua jartzeko egin duen proposamenaren balorazio ekonomikoa eskatuko da. Balorazio ekonomikoa mahai gainean dagoenean, erabakiko da eskaera onartu edo ez.

2.34) A.A.I.k, Arroabeko Olaeta 4-5-6-7-8ko bizilagunen eskaerari jarraituz, N-634 errepidean egitekoa diren biribilgunearen inguruan, informazioa eskatzen dute. Arroaberako sarbidea nondik joango den galdetzen dute eta Olaeta kaletik pasako ote den. Gipuzkoako Foru Aldundiak N-634 eta GI-631 errepideen loturan egin behar duen biribilguneak ez du Arroabeko auzoarentzat zuzeneko sarrera-irteerarik izango. Baldintza teknikoak ezinezkotzat egiten dute sarrera-irteera zuzena egitea. Horrez gain, Arroabeko auzoaren gaur egungo sarrera-irteerak hobetze aldera Zestoako Udalak proposamen ezberdinak aurkeztu dizkio Gipuzkoako Foru Aldundiari eta proposamen hauen artean dago GI-631 errepidetik Olaeta kalera Arroaberako sarrera bat egokitzea. Oraindik ez dago teknikoki sakonduta eta ez dago proiektu zehatzik.

2.35) G.C.-A.k, Karmengo Amaren Errepidea 6 zk.ko (Villa Anita) etxearen inguruan idatzia aurkeztu du. Bertan azaltzen da, udalarekin eginiko azken bileraren ondoren, Esteban Umerez abokatuarekin harremanetan jarri dela etxebizitzaren jabea, hitzarmenen baten inguruan adostasunak lortzeko. Zestoako Udalak bilera deituko du E.U. arkitektoarekin eta lan honetarako udalak izendatzen duen arkitektoarekin, Karmengo Amaren Errepidea 6 zk.ko etxearen egoera aztertu eta bi aldeek adostutako irtenbide bat aurkitzeko.

2.36) T.B.-T.S.L.k, "Idiazpi" R.5 areako U.E.R. 5/1 exekuzio unitateko urbanizazio jarduketaren programa aurkezten du. Hurrengo Hirigintza Batzordean aztertuko da gaia.

3. BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK

- 2019ko apirilaren 9an, Kultura Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.
- 2019ko otsailaren 21ean, Auzoak eta Baserriak Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.
- 2019ko otsailaren 27an, Gazteria eta Kirol Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.
- 2019ko martxoaren 20an, Gazteria eta Kirol Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.
- 2019ko martxoaren 14an, Ogasun Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

4.- ALKATETZA EBAZPENAK.- Honako Ebazpenen berri eman da:

- * 102 zk, J. A. E. langileari espedientea irekitzeko ebazpena.
- * 103 zk, Kanposantotik kendutako loreen ordainketa agindua J.M^a O.I, S.N., K.Z. eta I.L.ri.
- * 104 zk, L.Ar.en kontratazioa etxez-etxeko langileen oporrak ordezkatzeko.
- * 105 zk, I.E.en jornada aldaketa %52ra martxoaren 18tik 22ra bitartean.
- * 106 zk, Arroagoiko San Joan kalea 4zk.ari EITa pasatzeko errekerimendua.
- * 107 zk, Bainuetxeko errepidea 2zk.ari EITa pasatzeko errekerimendua.

- * 108 zk, Kanposantotik kendutako loreen ordainketa agindua M.U.I.ri.
- * 109 zk, Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena M^aD.L.A.ri.
- * 110 zk, Abokatu eta prokuradore izendapenak erreklamazio patrimonialeko 166/2019 prozedura laburtuan Zestoako Udala ordezkatzeko.
- * 111 zk, idiazpi auzunea 4ko 1C etxebizitzan sukaldea, bainugela eta zorua konpontzeko udal baimena F.M.H.i.
- * 112 zk, Kaleokerra 4 zk.ko fatxadako konponketa lanak egin eta andamiaoa jartzeko udal baimena J.A.O.ri.
- * 113 zk, Kanposantotik kendutako loreen ordainketa agindua C.A.I.i.
- * 114 zk, 2019ko udaleku irekietako begiraleak kontratatze lan-poltsa lehiaketa bidez osatzea.
- * 115 zk, 2019ko udaleku irekietako koordinatzailea kontratatze lan-poltsa lehiaketa bidez osatzea.
- * 116 zk, 2019ko kirol udaleku irekietako eta "uda gazte" programako begiraleak kontratatze lan-poltsa lehiaketa bidez osatzea.
- * 117 zk, 2019ko plantila organikoan jaso beharreko lanpostuen azterketa hastea.
- * 118 zk, Zestoako E.M.E.i, hitzarmen bidez, egiten dien zuzeneko ordainketaren zatia, aurrerapen gisa, ordaintzeko agindua ematen duena.
- * 119 zk, 13,2kV S.C. CT Zubi Ondo eta 45 linearen artean bi kata egiteko obretako udal baimena I.D.E.S.A.U.ri.
- * 120 zk, Zestoako Udaleko Arkitekto aholkularia kontratatze lehiaketa bertan behera uzteko erabakia.
- * 121 zk, Baratze Parkeko 19 zenbakidun baratzea erabiltzeko baimena ematea G.C.C.O.i.
- * 122 zk, J. A. E. langileari Ohartarazpen Zehapena.
- * 123 zk, A.A. kirol langileari lanaldia igotzea.
- * 124 zk, Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena ematea E. S.L.ri.
- * 125 zk, Udal Arkitekto Aholkulari bat kontratatze baldintza administratiboen onarpena.
- * 126 zk, Sozioekonomia aholkularitza zerbitzua kontratatze baldintza administratiboen onarpena.
- * 127 zk, Turismo informazio puntuko zerbitzua kontratatze baldintza administratiboen onarpena.
- * 128 zk, I.A.E.i, 2019-03-31ko datarekin, eszedentziaren amaiera eta borondatezko baja onartzea.

5.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK

- F. L.E.k eskatuta, GI-3730 errepidean itxitura egiteko baimena.
- Zarauzko Triatloi Elkartek eskatuta, GI-2633 errepidean Zarauzko triatloia ospatzeko galtzada ixteko baimena.
- Telefónica de España S.A.k eskatuta GI-631 errepidean lurpeko eroanbidea zeharka jartzeko baimena.
- Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.U.k eskatuta GI-631 errepidean eroanbidea espaloi azpian jartzeko eta erreia ixteko baimena.
- Informazio fiskala Gunea aplikazioaren bitartez betetzeari buruzko informazioa eskatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

6.- GALDERA ETA ERREGUAK

Ez dago.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa goizeko 12:20ak direnean, nik neuk,

Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue

Idazkaria,

O.e
Alkateak,